

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3657

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 4koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia Sortzeko Legearen aurreproiektua.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abuztuaren 4ko Aginduaren bidez, alde zuzeneko onarpena eman zaio Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko Legearen aurreproiektuari.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 8.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Azaldutakoagatik, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak 11.2.a) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzea, hogeita egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, alegazioak aurkezteko aukera izan dadin, lege-aurreproiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>), baita Legegunea euskal araudiaren atarian ere (<https://www.legegunea.euskadi.eus>).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 4a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
GOIATZ AIZPURU LIZARRALDE.